



## GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Federación Guipuzcoana de Montaña

Gipuzkoako Mendizale Federazioko Batzarrak bere iritzia eman nahi du Pasaiaiko Kanpo Kaia proiektuaren inguruan:

1.- Proiektu hori, azken batean, aurrera eramatea erabakiko balitz, Jaizkibelgo itsaslabarrari eragingo lioke. Zonalde hau Europar Batasunetik babestu dago (LIC).

2.- EBeko legediak babesten dituen zonaldeak barne araudi bat garatu behar dute, non barnean egingo diren jarduerak kudeatuko diren.

3.- Gune hau autonomi eta probintzi mailako kudeaketa planetan babestu bezala agertzen da.

4.- Mendizaleok Jaizkibelen egin ohi dugu gure ihardueretako bat. Bertatik igarotzen da Gipuzkoako mendi ibilbide garrantzitsuenetariko bat (GR-121), baita beste ibilbide ineteresgarri batzuk ere.

5.- Gipuzkoako Mendizale Federazioak garapen iraunkorrean sinesten du eta mendizaletasuna bultzatuko dituen proiektuak babesten ditu.

6.- Zonalde honen desagerpena tamalgarria izango litzateke mendizaleontzat, bai kirol nola ingurumen mailan.

7.- Aipaturiko arrazoi guztiak kontuan hartuz proiektu honen kontrako iritzia hartzea erabaki dugu.

8.- Dokumentu hau, gai honen inguruan kompetentziak dituzten administrazioei helaraztea erabaki da.

Donostian, 2007ko maiatzarenaren 10ean